

ITAUNAK LUIS AROSTEGI-RI

Karmel-ek: 2003-2009 bitartean Karmeldarren nagusi, “jenerala”, izan zaranez, munduko nazino eta kultura askoren eza-gupena egiteko aukera izan dozu.

Luis Arostegi-k: Gure karmeldar anaidian “jenerala”, era diferenteetan izan arren, gizonezkoen eta emakumezkoen nagusi da, eta gizonezkoak 70 inguru nazinotan dagoz, eta emakumezkoak 100 bat nazinotan. Leku batzutan gitxiago, beste batzutan asko. India nazino bat da, baina an 180 inguru leku eta komunitate bisitatu ditut. Asko diralako an karmeldar familia-komunitateak. Horrela urteotan milaka eta milaka persona personalki agurtu eta hareekaz artuemona izan dot.

Karmel-ek: Zelan egiten da lurralde batetik kontinente guztietarako, hainbeste nazinotarako saltua?

Luis Arostegi-k: Une batetik bestera uretan aurkitzen zara eta uger egin behar dozu, bizitzan sarri jazoten dan lez. Dana dala, nik naziono arteko esperientzi apur bat baneukan, gure Euskal Herriko Probintzia Ameriketan, Indian eta Afrikan hedatua izan danez, eta mundu guztiko batzarren batzuetan parte hartua nintzanez.

Kargua hartutakoan, behingoan, gauza konkretuak izaten dira, bizitzak ez dau itxaroten eta: bhear-beharrezko izendapenak egitea, erantzunak emotea, arazoak aztertu eta erabagitea, la-

guntzaileakaz batera, nahiz bakarrik. Gero, luzaroagorako plana egin behar da: Sei urteren epean batez ere zeri ekingo deutzagun, Ordena guztia kontuan harturik eta lurralde handi bakoitza; eta horretarako zelako medioak erabiliko diran, batzar orokorrak (zertaz, noiz eta non), eta bisitak beharrianak eta itxaropenak ikusteko: zelako bisitak eta zelan eginak, etabar.

Karmel-ek: Kontinente bakoitzeko zerbait esan daikezu?

Luis Arostegi-k: Europa, Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Australia, antzekoak dira gehien baten, ekonomia, gizarte eta kultura aldetik; gure ardura eta ekintzarako antzeko arazoak gertatzen dirala esan nahi dot. Europa aipatzean Erdikoa eta Mendebalekoa dot gogoan. Sortaldekoa, lehen komunismo azpian izan zana, oso ezbardina da, baina han be Polonia-k eta Kroazia-k, esate baterako, eboluzino guztiz apartekoa izan dabe, hareen egoerea eta errententzia lehenago be bereziak izan ziranez. Baina horregaitik, hain zuzen, Bielorrusia zein Ukraina, edo, gehiago oindino, Siberia eta Kazakistan bisitatzea hunkigarria izan zan niretzat, gizarte aldetik eta erlijino aldetik daben beharrian gorriagaitik. Itxaropena, konfiantza eta adorearen beharrienean sentidu nintzan. Txirotasun materiala han dago, baina gizazkoa sakonagoa da behar bada.

Afrikari buruzko barriak agertzen dira nozbehinka gure komunikabideetan, gehien baten negatiboak, gitxiago hareen giza kultura eta giza balioak. Afrika be ez da bat, eta txirotasunean be maila handiak dagoz: batzuetan txirotasuna be duina dala esan leiteke, duintasunez daroena, batez be oindino euren tradizinoak eta berezko inguruak zuzentzen dituanen. Eta orokorrean bizinahi indartsuak bultzaturiko herriak dira, alkar-tea, ospakizuna eta kanpokoakaz hartuemonak izatea maite dituenak.

Holako espresibidadean antzekoak dira indiarrek. Indian txirotasunaren eta aberastasunaren, edo behintzat ekonomi dinamismoaren, arteko aldea, kontrastea, ikaragarria da sarri.

Historian herri baketsua izan da gehien baten eta kanpokoa hartzeko irekia. Azken aldiaren nazionalismo kulturala eta erlijio-soa sortu da, gogorkeriaz be bai. Baina kristautasunaren kontrako lege eta ekintzetan arazo soziala dago azpian: orain arte goi mailako kastak agindu dabe danetan, eta kristautasunak bere mezuan eta egitezko ekintzetan behe-mailakoai emoten deutse heziketa eta duintasuna. Honen bildur dira betiko goi-mailakoak. Sortaldeko Asian, Japon eta Singapur eta Taiwan-en ezeze, beste nazinoetan be dinamismo hori agirikoa da, era diferenteetan. Dinamismo hau erlejinoan be ikusi daiteke: historian izan dituen bizikizun dramatikoaren ondoren, sakontasun eta indar barria asmatzen dira eurakan. Kulturari buruz, sortaldeko horreek guretzat zarratuak dirala, ez dirala ezagutzen euren sentipen eta pentsakeretan esaten da. Baliteke holako zerbait izatea, kultura diferentea diranez, eta gure gizarteagaz historian zehar esperientzia bidegabekoak eta gogorrak izan dituelako. Baina nik esperientzi ona izan dot eurakaz. Begirunez, zabaltasunez eta konfiantzaz tratatu behar dira, eta euren kultura eta balioak aintzakotzat hartu. Orduan oso esker oneko eta ustetsu agertzen dira.

Ozeania aldean ugarte batzuk bisitatu ditut, monja karmeldarrak han diralako. Nik ezagutu ditudanak, oindino naturatik hur bizi dira, bizitza berezkoan, itsaso aberatsak eta lur emonkorrak janarituta. Urrin dagoz, geografia eta bizieraz be gugandik. Euren arteko komunikabideak bezailak dira, eta alkarregandik egitez urrin bizi beharra dabe. Baina arrotz-maite dira, pozik sartzen dira hartuemonetan konpokoagaz, hizkuntzak hori ahalbidetu ezkeru.

Latinoamerika, hizkuntzagaitik eta historiagaitik, hurragokoa da guretzat. Kontinente horretan be, gizarte eta erlejino eupadak latzak dira. Alderdi batetik, berez alkarte, taldea dabe maite, eta alkarlanerako jokerea eta poza erakusten dabe. Sentimentu erlijiosoa kulturaz barruan daroe. Bestetik, egonezina eta batetik besterako iraultzak ikusten dira, eta ez gitxi krime-

nak leku batzuetan. Nik lehendik be hainbat nazino ezagutzen nebazan. Oraintsuago, esaterako, Kuba ezagutu dot. Polizi regimena asmatzen da hasikeratik, eta jendeagan inertzia, sumoa. Baina kubanoa historiagaitik eta formazinogatik, kritikoa da eta azkarra; beraz askatasuna lortzean, garapen bizkorra izango dabela dirudi, aurrerakuntza eta bizitasuna.

Karmel-ek: Hainbat jakingarriren jabe egiteko erea izan dozu, edozein turistak ez dauka horrenbeste.

Luis Arostegi-k: Egia da, kontaezin herri, kultura eta gizarte eta pertsonakaz hartuemoneten jartzen zaitu karguak. Aukera hori ordain ezinekoa da. Baina, egiaz, ezin daiteke turismo gogoz ibili. Diranak dirala bidaldiko orduak eta galdutako gauak, hara heltzean, prest eta zoli egon behar da eta euren programa trinkoa bete, gelditu barik, batzarrak, ospakizunak, alkarrizketak, erabagiak, batetik bestera, hilabete, bi nahiz hiru jarraian. Holan be, osasunak lagundu ezkerero, bizikizun pozgarria eta atsegina da: zure zain dagoz, benetan euren lez hartzen zaitue, leku askotan adoretu eta biztu egingo dituzula uste dabe.

Karmel-ek: Anekdotak asko izango zenduzan han-hor-hemenetan.

Luis Arostegi-k: Bai ugari, norberarentzat interesgarriak. Baina zeozer aipatu geinke. Urte baten Gabon egunak Bagdag-en ospatu nituen, inbasino ostean, dana gudalostez hartuta, bonben leherkuntzak entzuten zirala. Hango karmeldarrak ikara handia euken gure arduraz, zeozer gertatu ez ekigun, sekuestroa, esaterako. Horregaitik, "jeneral" bat etorrela jakiterik ez eben nahi. Dana dala, ederto ospatu genduan, eleiza beterik, Gabon meza, arratsaldean, gauez ez egoan ibilterik eta. Ondo gertatua, musika eta guzti. Eta hau azpimarratu nahi dot: doinu-jole bat musulmana zan, kristau korukoa zan. Jazoera honek Ozeano Indiko-ko Maurizio ugartekoa gogorazten deust: han karmeldarren eleizako bidrierak musulman batek oparituak dira. Misiolariak auzoko ume ta gazteen alde egiten daben lana-

ren ezker onez. Holako jazokunak be gogoratzekoak dira, beste jazoera izugarrien ondoan. Anekdotata segin hareek ez dabe inondik egite honeen larria gitxitzen. Ez dabe kristauen kontra-ko biolentzia, eraiketak barne, ahaztuazoten. Izan be, gizadiak gaur, beste arazoen artean, kultura batzuen arteko tenka eta alkar-jotea dauka egite askoren azpian. Hain zuzen, anekdota hareek beste erlazino batzuk izan daitekezala erakusten dabe.

Karmel-ek: Kultura aipatu dozu. Zerbait garrantzitsua ikusten dozu horretan giza aldetik eta kristau fede aldetik.

Luis Arostegi-k: Bai, jakina. Kultura errien izakera da, euren pentsakera eta balio sakonak. Munduko herrien artean harmonia eta bakea lortuko badira, herrien balioak errespetuz artu behar dira aintzat. Badakigu horretan bereizkuntzak egin behar dirala, ezin daitekela gai korapilotsu honeetan injenuidatez berba egin. Ohiturak ez-zuzenak eta kaltegarriak dira sarri, geure herrietan be historian zehar jazo izan dan lez eta jazoten dan lez. Kultura aipatu eta begirunez hartzea ez da lehengoa bere haretan aldatzeke mantentzea. Giza kulturak, benetakoak, beragan euki behar dau giza duintasunerako dinamismoa. Giza izateak berea dau gizatasunerantz mugidu eta abiatzea. Era bardinean, kristautasunarentzat be kultura bakoitzaren barruan sartzea nahitanahiezkoa da, bere mezuaren erdi-erdian giza-kundea dagoanez, Jaungoikoa gizatasunean murgiltzea. Baina, batera, kristau fedea profetikoa da, aldatzailea, giza duintasunerako bultza eta deia, eta horrela kultura kreatora. Maitasuna da kulturen bihotzean sartu eta honeek barrutik eraldatu eta garatzeko baldintza. Maitasunak bereizi behar dau zer dan herria suntsitzen dauana eta zer garatzen dauana. Dinodan hau orokorra da, gain-gainekoa, baina ikusi daiteke badagoala hor egiaeren alderdia.

Karmel-ek: Badabe hortik gure herriaren barririk?

Luis Arostegi-k: Horretan Europa-ren, historian gure herri-gaz hartuemonen bat izan daben lurraldeen artean, eta beste

guztien artean bereizi behar da. Orokorrean, gure herria lehenagotik misiolarien bidez izan da leku askotan ezagutua. Ameriketan eta Australian, gure herritarren emigrazinoaz be bai. Orain be ikusi ditut karmeldarren Garapenerako Erakundeak, beste batzuen laguntzaz, baita Euskal Institutuzioenaz be, egingako garapen eraikuntzak: eskolak, geixotegiak, lantegiak: an agertzen da gure erriaren izena. Gaur egun komunikabideen bidez urrineko barriak leku askotara heltzen dira. Horretan gure herria, zoritxarrez, ETaren egintzez da ezaguna sarriegi, eta horrela beste lurralde batzuetako gerra eta terrorismoaz antzeratua edo bardindua. Holakoetan azalpena emon beharra izan neban, gure herria historiaz eta kultura sendoz bakezalea, errespetu handikoa dala (“lotsa” berbeak ondo adierazoten dauan lez). Inoz gure herriaren jatorriaz itaundu deuste, eta euskerazko berbaren batzuk esateko eskatu, eta zerbait abesteko be bai. Orduan, „Agur, jaunak“ abestiaren berbak azaltzen nebazan: giza duintasun bardina autortzen daben berbak, eta traszendentzian oinarritutako duintasun ikutu-ezina (“danak Jainkoak iñak gara”).

Atsegina izan zan USAko Reno-ko uniberidadeko euskal departamentuan izan neban harrera, gure kontseilari iparramerikarrak egoki antolatua: han aurkitu nebazan eskola nagusiko herrikideak, eta egiten daben lanaren zehaztasunak jakin. Bake, alkarte eta kultura bide hori ezin hobea da gure izen onerako. Arratsaldean moja karmeldarren eleizatxuan mezea egoan antolatuta. Gure herrikideak euskal kantuakaz paperak banandu ebezan monja eta batu ziran iparramerikarren artean, eta danak ahalegindu ziran gugaz batera, Santu, Gure Aita eta Agur, Jesusen Ama, abesteko. Egintzaren barruan esan behar neban berbaldian, gure aurreko euskal artzainen adore harri-garria goraldtu neban, Sartalde haretako lautada bakartuetaraino bizibide bila joateko adorea, eta beste herrietako etorkinena be bai, eta baita hartu zituan lurraren eskuzabala be, gaurko Ipar Amerika etorkinak eratutako nazinoa dala gogoraziz.

Karmel-ek: Ez zara, ardura eta joan-etorri artean, gure herriaren zoriaz ahaztuta ibili.

Luis Arostegi-k: Ez da meriturik horretan. Ezinezkoa da ahaztutea. Eta, ganera, Karmel hartzen neban eta Euskal Herriko beste aldizkari batzuk, interes handiaz ikusten nebazanak, Erroman nengoanean. Handik ikusten neban seriotasunez eginak zirala, eta konturatu zelako ahalegina eskatzen dauan holako aldizkariak prestatzen jarraitzeak.

Hau gaineratu gura dot hemen: Gure herriaren historiak eta kultura egoereak berez beste holakoen antzeko zoria ulertzeko errezatasuna edo bidea emoten deuskue.

Eta beste hau esatea be zilegi bekit: Gure misiolarien eginzen ondorioak ikusiz, eta beste herri batzuen gaurko entusiasma asmatuz, gure herriaren gaurko egoerea gogarte-gai bihurtzen jatan. Ekonomi eta gizarte aurrerakuntza eta erosotasunak, alderdi batetik. Poztu egiten gaituanak. Bestetik, niretzat garrantzizko diran balioak desagertzea. Alkarrizketetan gure herriaz galdetzean, batzuk izan dogun erlejinoari buruzko aldakuntzak harritzen zituan. Hori eta beste balio batzuen aldakuntza kultura eraldatzea dala azaltzen ahalegintzen nintzan, nahiz eta zaila izan zergaitik jazoten diran holako aldakuntzak guztiz argitzea. Sartaldeko ia herrialde guztietan gertatu izan dira antzeko aldakuntzak. Baina hau be gogorazten neban: gure herrian jende askok, eta gazteen artean ez gitxik, boluntario erakundeetan lan egiten dabela, Euskal Herrian bertan naiz garapen nazinoetan. Beraz, badala hor prestutasuna, eta gerorako itxaropena.

Karmel-ek: Eta zein izango litzateke egoera honi erantzuteko era?

Luis Arostegi-k: Erantzun osorik ez dot uste inork daukanik, estrategia lakoa izango litzaken erantzunik ez dago. Baina bitartean, eguneroko ekintzak betetzen jarraitzen dogula, pentsa egin behar dogu sakon, bakean, garraztasun barik, pentsatu.

Eta zuzentasunaren alde jarri koherentziaz. Eta otoitz egin, hau da, kristau fedearen gunean, bihotzean murgildu. Beste era batera esanda, “jatorrak” izan, benetakoak, barrutik bizi diranak.

Karmel-ek: Eskerrik asko. Ondo etorria herrira eta Karmel-era.

Luis Arostegi-k: Eskerrak zeuoi, hemen lanean jarraitu dozuenoi. Gure herritik, hemengo Elizatik, hemengo karmeldarrekanetik hartu dogu hainbeste, eta hau mundu guztiko Eliza eta herrietatik hartutakoaz alkartzen da egoki. Geureak bes-teen balioak estimatzera garoaz; besteak ezagutu eta onartzeak geurea estimatzera.

Karmel